# UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 05/2021

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK 2021eko MARTXOAREN 17an EGINDAKO EZ OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA 17 DE MARZO DE 2021.

| ETORRITAKOAK: | ASISTENTES: | |
|---|---|---|
| ALKATE-LEHENDAKARIA:<br>EL ALCALDE-PRESIDENTE: | D. Agustin Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTE DE ALCALDE: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª David Mateos Jimenez jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | Dª. Nagore Duran Urbistondo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Iñigo Zabaleta García jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jon Martin Tejeria jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Uxue Loinaz Urruzola and. | (EH BILDU) |
| | D. Joxe Ramon Pikabea Bereziartua jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Estibaliz Garmendia Arrieta and. | (EH BILDU) |
| | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Boris Nogales Benito jn. | (EAJ-PNV) |
| | Dª. Estitxu Alkorta Barragan and. | (EAJ-PNV) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ELOP) |
| | Dª Tania Rodriguez Gonzalez and. | (ELOP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO: | D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn. | |
| KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR: | D. Ion Murua Guinea jn. | |

| EZ ETORRIAK: | NO ASISTENTES |
|---|---|

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2021eko MARTXOAREN 17ko 09:30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Agustin Valdivia Calvo Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Fco. Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 09:30 horas del día 17 de MARZO de 2021, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Agustín Valdivia Calvo, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario accidental D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- 2021-2023 ALDIRAKO INBERTSIO PLAN ESTRATEGIKOAREN AURKEZPENA.

Alkate jaunak 2021-2023 Inbertsioen Plan Estrategikoa aurkeztu du. Plan horretan, urte horien arteko aldiko jardueren aurreikuspenak jasotzen dira, proiektu horien kostuen aurrekontua zehaztuta. Halaber, Plan Estrategikoa gauzatzeko finantzaketa-iturriei buruzko aurreikuspenak jasotzen dira.

1.- PRESENTACION DEL PLAN ESTRATEGICO DE INVERSIONES 2021-2023.

El Sr. Alcalde presenta el Plan Estratégico de Inversiones 2021-2023, en el que se recogen las previsiones de actuaciones en el periodo comprendido entre los citados años, con especificación del presupuesto de costes de dichos proyectos. Asimismo se recogen las previsiones sobre las fuentes de financiación para la ejecución del Plan Estratégico.

El Sr. Antxordoki toma la palabra para decir que cómo incluyen en este Plan los proyectos de SkatePark y Parkour cuando han acordado retirarlos del presupuesto por la forma en la que estaban planteados.

El Sr. Alcalde contesta que confían en que alguno de los grupos políticos que ahora han votado en contra en algún momento de este año cambie de opinión y se puedan hacer de otra forma, ya que son solicitudes que la juventud del pueblo hace. Añade que esto es una dación de cuenta de un plan, y que cualquier cosa que en él esté planteada y se quiera llevar a cabo tendrá que pasar por Comisión y Pleno.

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

El Pleno se da por enterado.

2.- 2021 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA ONESTEA.

Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko

2.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE PRESUPUESTO GENERAL 2021.

Se da cuenta del dictamen emitido por

Batzorde Informatiboak eta Kontuetako Bereziak, 2021eko martxoaren 9an egindako bileran hartutako diktaminaren berri ematen da.

la Comisión Informativa de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas, en reunión celebrada el día 9 de marzo de 2021.

Ikusirik udal kontu-hartzaileak ondorio horietarako egindako txostena eta erreparoa. AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN AURKA ONDOKO ZUZENKIZUN HAUEK AURKEZTU DIRA, eta haien gaineko eztabaidak ondoko emaitza hau ekarri du:

Visto el informe y Reparo emitido a los efectos por el Interventor municipal. CONTRA LA PROPUESTA PRESENTADA SE PRESENTARON LAS SIGUIENTES ENMIENDAS cuyo debate ha supuesto el siguiente resultado:

* ADMINISTRAZIO OROKORRA

* ADMINISTRACIÓN GENERAL

1.- Zuzenkizun partziala (ELOP)

1.- Enmienda parcial (ELOP)

Azterketa teknikoak: Etxebizitza komunitarioen proiektu bat garatzeko azterketa bat egitea proposatzen da, udalerriko gazteen emantzipazioa errazteko asmoz. Horretarako, beste gazte batzuekin partekatutako etxebizitza batean logela bat eskainiko da alokairuan, komunitateari, bizikidetzari eta lankidetzari zuzendutako ekintzak garatzeko konpromisoa hartzen duten beste gazte batzuekin batera.

Estudios técnicos: Se propone realizar un estudio para desarrollar un proyecto de viviendas comunitarias con intención de facilitar la emancipación de los y las jóvenes del municipio, ofreciendo en alquiler una habitación en una vivienda compartida con otros jóvenes que se comprometan a desarrollar acciones dirigidas a la comunidad, la convivencia y la cooperación.

Ares jaunak defendatzen du eta Zabaleta jaunak gobernu-taldearen jarrera defendatzen du.

La defiende el Sr. Ares y el Sr. Zabaleta defiende la postura del equipo de gobierno.

Bozkatzera jarrita ELOP udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ELOP) eta kontrako hamaika botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) BAZTERTZEN du hura.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal ELOP, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con seis votos a favor (4 EH BILDU, 2 ELOP) y once votos en contra (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) RECHAZA la misma.

1A.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

1A.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Azterketa teknikoak: Hipodromo etorbideko udal jabetzako etxebizitzetan gazteak emanzipatzeko etxebizitza komunitario, pertsonen autonomia errespetatuz etxebizitza dotazionalak edota dependentzia egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzak sortzeko ikerketa eta egikaritze prozesu bat sortzeko proiektu batentzako diru partida sortzea proposatzen dugu.

Estudios técnicos: Se propone la creación de una partida económica destinada a un proyecto de investigación y ejecución para la creación de viviendas comunitarias, dotacionales y/o destinadas a personas en situación de dependencia para la emancipación juvenil en viviendas de propiedad municipal ubicadas en la Avenida Hipódromo,respetando la autonomía de las personas.

En el turno de debate interviene el Sr. Zabaleta del grupo municipal socialista.

Bozkatzera jarrita EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ELOP) eta kontrako hamaika botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) BAZTERTZEN du hura.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal EH BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con seis votos a favor (4 EH BILDU, 2 ELOP) y once votos en contra (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) RECHAZA la misma.

2.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

Diru-laguntzak: Elkarteek COVIDek eragindako kalteengatik dituzten beharrak estaltzeko kreditu bat ematea proposatzen da.

2.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Subvenciones: Se propone dotar un crédito destinado a cubrir las necesidades que tienen las Asociaciones por los perjuicios ocasionados por el COVID.

En el turno de debate interviene el Sr. Zabaleta del grupo municipal socialista.

Bozkatzera jarrita EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ELOP), kontrako zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE) eta,hiru abstentziorekin (3 EAJ-PNV) BAZTERTZEN du hura

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal EH BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con seis votos a favor (4 EH BILDU, 2 ELOP), ocho votos en contra (8 PSE-EE-PSOE) y tres abstenciones (3 EAJ-PNV) RECHAZA la misma

En el turno de explicación de voto interviene el Sr.Ares del grupo municipal ELOP.

3.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

Diru-languntzak: Eten digitalak eragiten dituen desberdintasunak estaltzeko kreditu bat ematea proposatzen da.

3.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Subvenciones: Se propone dotar un crédito destinado a cubrir las desigualdades que ocasiona la brecha digital.

En el turno de debate interviene el Sr. Zabaleta y el Sr. Alcalde. En consecuencia se retira la enmienda por la propuesta del Sr. Alcalde de incrementar otra partida para ello.

ENMENDAKINA ERRETIRATZEN DA

LA ENMIENDA QUEDA RETIRADA.

* BARNE ERREGIMENA

8.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

Azterlan teknikoak: Michelingo kiroldegiko instalazio berrien diseinua herritarren eta tokiko kirolaren beharretara egokitu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da parte-hartze prozesu bat irekitzea.

* REGIMEN INTERIOR

8.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Trabajos técnicos: Para poder definir el diseño de las nuevas instalaciones del Polideportivo de Michelin que se adapte a las necesidades de la ciudadanía y del deporte local, se considera necesario abrir un proceso participativo.

En el turno de debate intervienen el Sr. Zabaleta y el Sr. Alcalde.

Bozkatzera jarrita EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko lau botorekin (4 EH BILDU) kontrako hamaika botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) eta bi abstentziorekin (2 ELOP) BAZTERTZEN du hura.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal EH BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con cuatro votos a favor (4 EH BILDU), once votos en contra (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) y dos abstenciones (2 ELOP) RECHAZA la misma.

## * ZERBITZU SOZIALAK

12.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

Interb. Sozioedukatiboko eta Psikosozialeko Zerbitzuak: Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko familiekin egindako programak, gaur egun, ez ditu udalerriaren beharrak asetzen. Proposatutako igoerak ez dio egoerari behar besteko erantzunik ematen, eta kreditu gehiago ematea proposatzen dugu, programa osoago bat kontratatu ahal izateko.

## * SERVICIOS SOCIALES

12.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Servicios Intervención Socioeducativa y Psicosocial: El programa con familias de intervención socioeducativa y psicosocial actualmente no llega a cubrir las necesidades del municipio. El incremento propuesto no da la respuesta necesaria a la situación y proponemos ampliar más crédito para poder contratar un progama más completo.

En el turno de debate toma la palabra la Sra. Acevedo del grupo municipal socialista.

Bozkatzera jarrita EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ELOP) kontrako zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE),eta hiru abstentziorekin (3 EAJ-PNV) BAZTERTZEN du hura.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal EH BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con cuatro votos a favor (4 EH BILDU), once votos en contra (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) y dos abstenciones (2 ELOP) RECHAZA la misma.

En el turno de explicación de voto toma la palabra el Sr. Ares del grupo municipal ELOP.

13.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

Desgaitasuna duten adineko pertsonen familientzako dirulaguntzak: Laguntza-lerro hori desagertu egin da aurrekontu-proiektutik, eta, gure ustez, eutsi egin behar zaio eta diru-lerroa handitu egin behar da.

13.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Subvenciones para familias de personas mayores con discapacidad: Esta línea de ayudas ha desaparecido del proyecto de Presupuestos y en nuestra opinión hay que mantenerla y aumentar la línea de dinero.

En el turno de debate intervienen el Sr. Martin del grupo municipal EH BILDU, el Sr. Nogales del grupo municipal EAJ-PNV y la Sra. Acevedo del grupo socialista.

Bozkatzera jarrita EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko lau botorekin (4 EH BILDU), kontrako zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE),eta bost abstentziorekin (3 EAJ-PNV, 2 ELOP)

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal EH BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con cuatro votos a favor (4 EH BILDU), ocho votos en contra (8 PSE-EE-PSOE) y cinco

BAZTERTZEN du hura

abstenciones (3 EAJ-PNV, 2 ELOP) RECHAZA la misma.

14.- Zuzenkizun partziala (EH BILDU)

Diru-laguntzak: Familientzako laguntza ekonomikoa pobrezia energetikoari aurre egiteko. Diru-laguntzen lerroak murrizketak jaso ditu. Diru-laguntzen lerro hori ekonomikoki zabaltzea eta haren oinarriak berregituratzea proposatzen dugu, pertsona gehiagori arreta eman ahal izateko.

14.- Enmienda parcial (EH BILDU)

Subvenciones: *Ayuda económica a las familias para hacer frente a la pobreza energética. La línea de subvenciones existente ha recibido recortes. Proponemos ampliar económicamente esta línea de subvención y reestructurar sus bases para poder atender a más personas.*

En el turno de debate intervienen la Sra. Acevedo del grupo socialista y el Sr. Martín del grupo municipal EH BILDU.

Bozkatzera jarrita EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ELOP) kontrako zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE),eta hiru abstentziorekin (3 EAJ-PNV) BAZTERTZEN du hura.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal EH BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con cuatro votos a favor (4 EH BILDU), once votos en contra (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) y dos abstenciones (2 ELOP) RECHAZA la misma.

* INGURUMENA ETA OSASUNA

15.- Zuzenkizun partziala (ELOP)

Animalientzako aisialdirako gune mugatu bat sortzea proposatzen dugu, Animaliak edukitzeari buruzko ordenantza berrikustea, aztertzea eta kokagune egokiena proposatzea Parte-hartze prozesua. Proposamenarekin batera, herritarrak kontzientziatzeko kanpaina bat egingo da Jabeak konpainiako animaliekin duen erantzukizuna.

* MEDIO AMBIENTE Y SALUD

15.- Enmienda parcial (ELOP)

Proponemos estudiar la creación de una zona acotada de esparcimiento para animales, que junto con una revisión de la ordenanza de tenencia de animales, analice y proponga la ubicación más adecuada mediante un proceso participativo. La propuesta irá acompañada de una campaña de concienciación ciudadana sobre la responsabilidad del propietario para con sus animales de compañía.

En el turno de debate interviene el Sr. Zabaleta del grupo socialista.

Bozkatzera jarrita ELOP udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko bi botorekin (2 ELOP), kontrako zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE) eta zazpi abstentziorekin (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV) BAZTERTZEN du hura.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal ELOP, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con dos votos a favor (2 ELOP), ocho votos en contra (8 PSE-EE-PSOE) y siete abstencioens (4 EH BIDLU, 3 EAJ-PNV) RECHAZA la misma

22.- Zuzenkizun partziala (EAJ-PNV)

Zumaburu parkea birgaitzea: Zumaburu parkean argiteria eta hesiak berritzeko partida sortzea

Bozkatzera jarrita EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako zuzenkizuna, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko bederatzi botorekin (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 2 ELOP) eta kontrako zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE) ONARTZEN du hura.

22.- Enmienda parcial (EAJ-PNV)

Rehabilitación parque Zumaburu: Creación de una partida de renovación de alumbrado y vallas en el parque Zumaburu.

Sometida a votación la enmienda presentada por el grupo municipal ELOP, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 2 ELOP) y ocho votos en contra (8 PSE-EE-PSOE) APRUEBA la misma.

Por otra parte, se informa desde la Intervención municipal se ha emitido informe de fiscalización en el que se afirma la concurrencia de carencias esenciales en el expediente y se concluye en la suspensión del expediente.

Asimismo se informa de la existencia de otro informe emitido por la Secretaria General en el que por los argumentos que en el mismo se recogen se concluye que no concurre causa alguna para justificar la suspensión del expediente adoptada por la Intervención.

Ante esta situación, el Sr.Alcalde propone al Pleno de laCorporación se adopte acuerdo resolviendo el levantamiento de la suspensión decretada por la Intervención.

Bozkatzera jarrita Alkateak egindako proposamena, prozedura etearena, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko zortzi botorekin (8 PSE-EE-PSOE) eta bederatzi abstentziorekin (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 2 ELOP) ONARTZEN du proposamena.

Sometida a votación la propuesta de levantar la suspensión del procedimiento, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con ocho votos a favor (8 PSE-EE-PSOE) y nueve abstenciones (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 2 ELOP) APRUEBA la propuesta.

A continuación la Alcaldía, la Sra. Alkorta y el Sr. Martín toman la palabra para dar a conocer su postura ante lo acontecido en relación a los informes emitidos por la Secretaría y la Intervención municipal

Emendakin guztien eztabaida eta bozketa bukatu ondoren, jarraian batzordean onartutako diktamina bozkatzera pasako da.

Bozketara jarrita Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzorde Informatiboak eta Kontuetako Bereziak 2021eko martxoaren 9an egindako bileran egindako diktamina, Lasarte-Oriako udalbatzarrak aldeko hamaika botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) eta kontrako sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ELOP) honako akordio hauek hartzen ditu:

Una vez finalizada la fase de debate y votación de todas las enmiendas, a continuación se pasa a votar el dictamen emitido por la Comisión.

Sometido a votación el Dictamen de la Comisión de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas, de fecha 9 de marzo de 2021, el Pleno de la Corporación de Lasarte-Oria con once votos a favor (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) y seis votos en contra (4 EH BILDU, 2 ELOP), adopta los siguientes acuerdos:

**LASARTE-ORIA**
UDALA-AYUNTAMIENTO

**LEHENA**: Onetsi da Udalaren 2021. Urteko ekitaldirako AURREKONTUAREN EGITASMOA, ondoren kapituluka banakaturik eta honako honi datxekion espedientean agertzen denaren arabera:

**PRIMERO**: Se aprueba el PROYECTO DE PRESUPUESTO municipal para el ejercicio 2021 conforme al siguiente desglose por Capítulos y expediente adjunto:

## GASTUEN EGOERA
## *ESTADO DE GASTOS*

| | DESKRIBAPENA | Zenbatekoa *Importe* |
|---|---|---|
| KAP1 | LANGILERIA-GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | 8.541.200,73 |
| KAP2 | OND. ARRUNTEN ETA ZERB. GAST.<br>COMPRA BIENES CORRIENTES | 9.811.009,64 |
| KAP3 | FINANTZA-GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | 11.600,00 |
| KAP4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 3.086.857,33 |
| KAP5 | KREDITU GLOBALA<br>TOTAL CREDITO GLOBAL | 559.666,63 |
| KAP6 | EGIAZKO DIRU-EZARPENAK<br>INVERSIONES REALES | 12.788.532,40 |
| KAP7 | KAPITAL TRANFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 846.457,39 |
| KAP8 | FINANTZA-AKTIBOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | 12,00 |
| KAP9 | FINANTZA-PASIBOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | |
| | GUZTIRA // TOTAL | 35.645.336,12 |

## *ESTADO DE INGRESOS*

| | DESKRIBAPENA | Zenbatekoa *Importe* |
|---|---|---|
| KAP1 | Zuzeneko zergak<br>Impuestos directos | 4.241.067,69 |
| KAP2 | Zeharbidezko zergak<br>Impuestos indirectos | 376.728,05 |
| KAP3 | Tasak eta bestelako sarrerak<br>Tasas y otros ingresos | 3.759.631,27 |
| KAP4 | Transferentzia arruntak<br>Transferencias corrientes | 13.386.379,83 |
| KAP5 | Ondarezko sarrerak<br>Ingresos patrimoniales | 270.178,06 |
| KAP6 | Inberts. errealen besterenzea<br>Enajen.inversiones reales | 460.875,12 |
| KAP7 | Kapital-transferentziak<br>Transferencias de capital | 1.138.597,15 |
| KAP8 | Aktibo finantzarioak<br>Activos financieros | 12,00 |

| | | |
|---|---|---|
| KAP9 | Pasibo finantzarioak<br>Pasivos financieros | 12.059.312,34 |
| | GUZTIRA // TOTAL | 35.692.781,51 |

BIGARRENA.- Pertsonalaren taula organikoa onestea. Hartan biltzen dira karrerako funtzionarioei, kontratu finkoko langileei eta aldi baterako langileei erreserbatutako lanpostu guztiak, aurrekontuen dosier honetan Eranskin gisa doan ereduaren arabera.

HIRUGARRENA.- Lanpostuen Zerrenda onestea. Hartan biltzen dira Udal honen zerbitzura dauden eta aurrekontuetan diru-izendapena daukaten lanpostu guztiak, aurrekontuen espediente honetan Eranskin gisa doan ereduaren arabera.

LAUGARRENA.- Ekitaldirako, Lan kontratupeko langileen soldata-masa 2.422.796,80 eurotan geratzen da.

Soldata-masa, onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko egoitza elektronikoan argitaratuko da, 20 eguneko epean.

BOSGARRENA.- Gastu ez finantzarioaren gehienezko muga onestea, aurrekontuen egonkortasuna eta gastuaren erregela betetzeko helburuarekin koherentea izango dena eta Udal honek 2021(e)ko aurrekonturako eslei ditzakeen baliabideen goi-muga markatuko duena, zeina 19.078.934,42 eurotan finkatua geratzen baita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek informazio publikora jarri beharko dira hamabost egun baliodunez, GAOean eta Udaletxeko iragartaulan argitara emanez, interesaturik daudenek azter ahal dezaten eta, hala badagokie, epe horren barruan egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ahal ditzaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

SEGUNDO.- Aprobar la PLANTILLA ORGÁNICA comprensiva de todos los puestos de trabajo reservados a funcionarios de carrera, personal laboral fijo y personal eventual conforme al modelo que se acompaña como Anexo en este expediente presupuestario.

TERCERO.- Aprobar la Relaciones de Puestos de Trabajo comprensivas de todos los Puestos de trabajo al servicio de este Ayuntamiento que cuentan con dotación presupuestaria conforme al modelo que se acompaña como Anexo en este expediente presupuestario.

CUARTO.- La masa salarial del personal laboral para el ejercicio queda fijada en 2.422.796,80 €.

La masa salarial aprobada será publicada en la sede electrónica de la Corporación y en el Boletín Oficial de la Provincia en el plazo de 20 días.

QUINTO.- Aprobar el límite máximo de gasto no financiero coherente con el objetivo de estabilidad presupuestaria y la regla de gasto, que marcará el techo de asignación de recursos de este Ayuntamiento, para el presupuesto de 2021 que queda fijado en 19.078.934,42 €.

SEXTO.- Estos acuerdos deberán someterse a información pública por quince días hábiles, mediante publicación en el BOG y en el tablón de edictos de la Casa Consistorial, a efectos de que los interesados puedan examinarlos y, en su caso, formular en dicho plazo las reclamaciones que estimen pertinentes. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del

Presupuesto General.

El Sr. Ares vota en contra porque considera que en esta presupuesto se recogen diversas actuaciones relacionados con el PlanEstrategico de inversiones presentado por al Alcaldía y se incluye como fuente de financiación la venta de patrimonio municipal y considera que se deben de buscar otras fuentes de financiación.

Antxordoki jaunak adierazi du bere ustez egungo egoeran beharrezkoa dela bat egitea eta aldeko botoa eman dutela, bere taldeak aurkeztutako proposamen batzuk onartu egin direlako.

Martin jaunak, bere aldetik, adierazi du ez zaiela erantzunik ematen pandemiaren ondorio gisa arazoan sortu diren beharrei. Ez da aurreikusten baliabide pertsonalak eta materialak sartzea berdintasunaren alde. Udal-ondare oro, gizarte-ondarea barne, zirkulazio askean jartzea aurreikusten da, horrela, etorkizunean korporazio berriek gizarte-erronka horiei aurre egitea eragotziz.

El Sr. Alcalde manifiesta que sin credito y sin patrimonio no se puede hacer frente a las demandas de la ciudadadnia. Si no se recibe financiación por otras via´s, subvecniones etc. Logicamente se deberán plantear las previsiones actuales y la venta de terrenos de VPO. se hará con destino a la construcción de VPO.

A continuación detalla aquellos puntos más destacados del contenido del presupuesto, para finalizar agradeciendo a los distintos grupos por el trabajo realizado y el esfuerzo aportado.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 12:28 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 12:28 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.